

Goierri tarra

307. zenbakia 2006ko irailak 22

Jexux Mendizabal artzaina
**GALDUTAKO
BIZIMODUAREN
TESTIGU**

Dolarea
jaterxea

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Aho finen
gozámenerako...*





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es


943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Salbatore-Ormaiztegi “bidegorriari”



Iñaki Apalategi

Errepideei bi metro eskas
kenduta egin bi karril
paraleloan ez direlarik
ia kabitzen bi gurpil
gorri labainkor margoa eman
(inork nahi baldin balu hil)
ondoren bertan jendea jarri
pasiatzen trankil-trankil
ta han joan behar zuen ziklista
betiko bidetik dabil.

Nahiz pasiatzen jende mordoak
bildu hango asfaltoak
hau ez da Loinaz zaharreko pista
han egiteko saltoak
irristaketa pista ere ez
bertan uzteko malkoak
ta beraz ahaztu modu hontako
bidegorrien kalkoak
ea berriak egiten diren
behar den bezelakoak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Idurre Eskisabel.

5. Ingurugiro txokoa: Pottoka
berreskuratu eta ezagutaraziz.

6. Aholkua: Gosariaren onurak.

7. Elkarrietzeta: Jexux Mendizabal
artzaina.

12. Erreportajea: Goieniz:
kalitatezko zinea ostegunetan.


16. Erreportajea: Musikarekin
gozatuz, hazi ete hezi.

19. Esperientziaren leihoa:
Kaietana Etxeberria.

22. Non zer.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Idurre Eskisabel

Bidaiak

Udarekin batera joan zaizkigu gehienoi oporrak. Konturatu gabe etorri zaigu udazkena eta egunero-ko bizimodura egokitu beharra, baina, batez ere, albokoei familiari, bizilagunei, lankideei, adiskideei... zeinen opor zoragarriak izan ditugun kontatzeko garaia. Argazki eta bideo festa ederra dabil bazterretan: Mediterraneo Herrialde Katalanetatik Greziaraino, Mendebaldeko Europako hiri eredugarriak, Europa Ekialdeko herrialde 'mendebaldetu' berriak, Latinoamerika txiroko luxuzko konplexu turistikoak, Asia exotikoa, Afrika 'irribarretsua' eta Ozeania harrigarria. Mundu osoa kabitzen zaigu kamera digitaletan, eta, beraz, munduaren jabe sentitzen gara.

Zenbat aldiz ez ote dizkigute errepikatu bidaiatzearen onurak? Nazionalismoa, esate baterako, bidaituz 'sendatzen' omen da (nazio txikietakoa, noski, estatu handien nazionalismo are eta handiagoa ez baitago zertan sendatu). Ezagutzeko eta jakiteko bidaiatzea baino hoberik ez omen dago. Ez eta barne ezinegon lasaitzeko eta asetzeko ere.

Eta guk amua jan. Hor ibili gara harra-paladan, bidaiaria agentzietan, urte osoko izerdi eta estresarekin bildutako diruaren truke hamabost egunerako atsedena, atse-

gina, ezagutzarako bidea eta, oro har, zorriona erosi nahian. Joan gara eta ikusi ditugu bazterrak, hau eta bestea, hurrena eta hurrenagokoa. Gida liburuetan 'derri-gorrez ikusi beharrekoa' esaldiarekin azpimarratuta ageri diren lekuak bisitatu ditugu, turiston komenientziarako prestatutako gunean. Guztiak lasterka. Bizi baino areago erretratatu edo bideoan grabatu egin ditugu ustezko zorion momentuak, oroitzapenetik ezaba ez daitezen (eta, bide batez, besteei 'han' izan garela frogatzeko). Sinetsi dugu ezagutu dugula beste toki bat, munduaren beste zati baten jabe egin garela. Eta etorkizunean, leku hori hitzerara etortzen denean juzku sendoak botako ditugu hango paraje, ohitura eta jendeez. Zenbat eta Mendebaldeko eredu-tik urrunagoak, orduan eta sendoagoak gure iritziak.

Sinetsi nahi genuke hamabost egunez zoriontsu eta gogo betez bizi izan garela, nekatuta, presatuta, eta lasaitasun premiaz itzuli arren. Beharbada, nahigabe zulotxo bat ere sentitu dugu barruan, baina ez dugu aitortuko. Are eta gutxiago geure buruari. Pantoja 'artista' espainiarrak prentsa arrosako kazetariarekin erabiltzen duen 'dientes, dientes, dientes' estrategia gezurtia nork ez du erabili noizbait opor desastre batzuetatik itzuleran?

Honekin guztiarekin, ordea, ez dut esan nahi bidaiatzea txarra dela uste dudarik, benetako bidaiaren zentzua galdu dugula baizik. Bidaiaren handitasuna urrats bakoitzean dagoela eta ez helmugan. Bidaiari abila izateko etxe albotik asko urrundu beharrik ez dagoela; paisaia eta jende gertukoan eta norberaren baitako zoko hurbilenetan daudela gauzarik harrigarrienak. Zein dirurekin eta zein bidaiaria agentzietan erosten da gaitasun hori?

Guztiak lasterka. Bizi baino areago erretratatu edo bideoan grabatu egin ditugu ustezko zorion momentuak, oroitzapenak ezaba ez daitezen.

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ARANDIA
Garaiea
LADA Ssang Yong
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

- ☐ **Goierriarra** 24 euro
☐ **hitza** 60 euro
☐ **Goierriarra** + **hitza** 65 euro

Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: NAN:

Telefono zenbakiak:

Kontu zenbakia(20 digitu):

Bidali txartel hau: **Goierriarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain**

Pottoka berreskuratu eta ezagutaraziz

Euskal Herrian Euskal Pottoka, Poni Vasco Navarro edo Pottok izenez ezagutzen den bertako zaldi arraza bat dugu.

Garai batean isurialde kantauriarrean bizi zen zaldiaren ondorengoa da, mendeetan zehar ikertzaile ezberdinek ongi deskribatu eta beraien berri eman digute, erromatar garaitik hasi eta gaur egunera arte.

Juan Inazio Iztueta zaldibitarrek ere 1847an idatzi zuen Gipuzkoako kondairan azaltzen duenez, zaldi txiki hauek Santaluziko azokan Espainia guztira saldu ohi ziren.

Baina kontu hauek joan ziren, eta industrializazioarekin, Pottokak zuen zamari lana galtzean, haragitarabideratu zituzten Pottokak.

Frantzia aldetik ekarrita haragitarako balio zuten zaldi arrazak sartu zituzten Nafarroan, eta Pottokarekin gurutzatuz Burgete arraza sortu zuten. Ondoren zaldi hauek Gipuzkoa aldera ekarri eta Pottokekin gurutzatu ziren arraza "hobetzea" asmoz.

Egoera honek Pottoka arraza ia erabat desagertzea ekarri zuen, hori zela eta FAO erakundeak desagertzeko arriskuko animala izendatu zuen 1996an.

Egoera hau ikusirik Zaldibiko gazte batzuk elkartu eta Zaldibi Aralar Pottoka Elkarte sortu zuten Pottoka arraza berreskuratu eta ezagutarazteko.

Elkartearen asmoa hurrengo belaunaldiak ere Pottoka ezagutu dezaten lan



egitea da. Hau honela izanik, Pottoken bidez lortzen diren etekin guztiak berriro ere Pottoka berreskuratzen inbertitzen dira. Era berean esan beharra dago, elkarte ezberdinen laguntza eduki arren ganaduzale batzuen interes produktibistek zuzenean talka egiten dutela, elkarteak duen kontserbazio ikuspegiarekin.

Elkarte sendotu eta indarrak batzeko asmoarekin dei bat luzatzen diegu zaldi-

bitar guztiei, gure arbasoek utzi ziguten antzinako altxor hau berreskuratzen lagundu nahi duten orori, ZAPE-ko partaide egin daitezten. Elkarte irekia izanik, denok egin genezake zerbait geure seme-alabek ere gure "zaldi txikia" ezagutu dezaten.

Ondorengo web gunean Pottoka edo ZAPE-ri buruzko informazio gehiago aurkituko duzue: www.pottoka.org.

JAKIN BEHARREKOAK

Guadalajaran, lehengo urteko udan suak erre-riko basoa berriro landatzen hasi dira. Nahi duen orok hartu dezake proiektu honetan parte, euro bat urteko ordainduz 50 urteetan zehar. Informazio gehiagorako: www.fundacionapadri-naunarbol.org

Geroz eta nekazal barietate gutxiago daude, FAOk adieazi duenez azken mendeen 75% espezie galdu dira. FAOn uste-tan 7.000 eta 10.000 espezie sortu dira baina egun 150 bakarrik lantzen dira.

1982an Terue Higa mai-suak mikrobioz eginiko nahasketa batez lurren emankortasuna handitu, osasuna hobetu eta etxeak garbitzeko produktuak sortu zituen. EM du izena (effective microorganisms) informazio gehiagorako web gune honetan duzue: www.chujosl.com

Oxigenoa botiletan. Espainian hasi dira oxigenoa botiletan saltzen, honela etxean hartu daiteke lasai. Botila hauetatik dosi txikiak hartu behar dira eta eragin onak omen dituzte gizakiongan, nekea gutxitu, zirkulazioa hobetu, organismoa depuratu, zahartzaroa luzatu, estresa eta insomioa txikiagoa izatea lortu. Estatu Batuetan oxigenozko tabernak omen daude, bertan saldu egiten dute oxigenoa.

Jexux Mendizabal: garai bateko artzaintzaren testigu

Aralarko Oiduiko saraira joan eta artzain txabolak eta ilorrak ikustea, 100 urte, edo gehiago, atzera egitea bezala izan da. Garai horretako lekuko zuzena da Jexux Mendizabal: gaur egun ardirik ez badu ere, udaberri-tik udazkenera, Zaldibiako Jexux Mendizabal artzaina bertan bizi da, bere bihotzeko lekuan. Manuel Otaño donostiarra, Oiduiko ondarea berreskuratu eta zaintzeko proiektua aurrera eramaten ari da, Jexux Mendizabalen laguntzaz, duela 70 urteko Oidui eta artzainen bizimodu-a nolakoa zen gizarteratu nahi



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



www.xetai.net

Zurgintza eta altzarigintza zure neurria

Tel.: 658 70 99 22 Faxes: 943 88 85 41
BEASAIN

Oraindik ere apirila noiz iritsiko zain egoten da Jexux Mendizabal zaldibiarra, bere bihotzeko Oiduiara igotzeko. Bere jatorria han dago, aitona eta aita ere artzain izan baziren. Bere arbasoen bizimoduarekin jarraitu du zaldibiarrek. 80 urte ditu eta sasoiko dago oraindik. Gaur egun ardirik ez dauka baina egun guztian ardiekin dabil. Korrika ere ibiltzen da oraindik, ardiren baten atzetik. “Gustatu egiten zait, bestela ez nintzen ibiliko. 80 urte ditut eta goikoak justizia ez dakit noiz jarriko didan eta bitartean hementxe jarraituko dut”, zehaztu du Jexux Mendizabalek.

Garai bateko artzainen bizimoduaz eta Oiduiiko saroiari buruzko testigantza zuzena kontatu digu zaldibiarrek.

Noiztik artzain?

Aita zena hemen egoten zen eta gu ere gazte asko hasi ginen. 80 urte egin ditut eta urte gehienak hemen egin ditut.

Aita eta aitona ere artzainak izan ziren, eta txabola berean egoten ziren.

Artzain latzak ziren. Haiek zuten meritua. Guk ez daukagu meriturik. Familia hazi, gu zazpi ginen, sei bizi. Gu aurrera ateratzea!

Familia guztia egoten zineten Oiduin?

Gu txikiak ginela, gure ama zena astoarekin ibiltzen zen, gora eta behera. Gu astasestoan sartu eta igotzen ginen Oiduiara. Badakizu, gizona bakarria motxa baita lanak egiteko. Aita morroiarekin ibiltzen zen eta gu pixka bat koxkortu ginen garaian gu hasi ginen.

Umeentzako festa izango zen.

Umeak umea behar izaten du eta gu hemen ibili ginen. Pelotan, batetik bestera, pelota botaz, tenisean antzera; korrika...

Umeak noiz etortzen zineten?

Eskolan pixka batean ibili



Artzainek eurek egiten zituzten txabolak. Argazkikoa, artzainak utzi bezalaxe dago.

nintzen baina gutxi. Gu pixka bat hazi ginen garaian, morroiarekin ibiltzen zen aita eta hari ere pagatu egin behar zitzaion, eta etxekoekin hasi zen. Eskolan hasi nintzen baina tarte handiak egiten nituen joan gabe. Gero berriro bidaltzen ninduten eskolara, nik baino txikiagoak ere ni baino aurrerago ibiltzen ziren, eta ni atzera, eta ni lotsatan bezala gelditzen nintzen. Eta hori tristea da eh!

Orduan gustura etorriko zinen Oiduiara?

Ikaragarri. Hau ere gustatu egin behar da. Ilusio ikaragarria behar da, ardia maitatzeko ikasi behar da. Ardia ikaragarri maitatu behar du.

Noiz igotzen zineten Oiduiara?

Behin martxoa pasatuta, apirilean sartuz gero, mendira etortzen ginen. Makina bat aldiz elurra ere egin zigen.

Asteko zein egunetan jaisten zineten?

Ordiziara askotan, asteazketan. Jaien ere bai, garai hartan, meza entzun beharra zegoen. Ardiak jetzi, gaztak pixka bat egiten hasi, gatz uretan utzi... eta meza entzutera joan behar izaten genuen.

Zaldibiara jaisten al zineten?

Bai. Gero Lizarrustira ere hasi ginen, 12etan izaten zen eta meza eta hemendik Lizarrustira ordubete batean sartzen ginen. Tertulia pixka bat egin, gorakoan bertso batzuk kantatu eta... hala ibiltzen ginen. Ardo pixka bat edanda mugitzen ginen. Oso ondo pasatzen genuen. Batzutan bazkaltzen ere gelditzen ginen.

Asteko mantenua erostez gain, azokan gazta ere saltzen al zenuten?

Bai, lehengo gazta gehienagorian saltzen zen. Gazta

ona egiten zen garai hartan. Gaur ona egiten dute, baina halako sustantziko gaztarik ez dute egiten. Hemen maiatzan egiten den gazta zoragarria da.

Nolakoa izaten zen artzainaren egun bat? Noiz jaikitzen zineten eta zein lan egiten zenituzten?

Egunsentian jaikitzen ginen. Ardiak garaiz jezten genituen. Bere garairako ekarri behar izaten ziren ardiak, bestela gora joaten zirenetan. Ze goiz giro zegoen ere aldea izaten zen. Hego haizea baldin bazegoen, oso gora joaten ziren. Euria eta epela bazegoen, hemen bertan gelditzen ziren. Ardiak jetzi, bidali, gosalduta eta gaztak egiten genituen. Gero, eltzea jartzen genuen berotzen, potajea, hura, arratsaldeko 4,30ak edo 5ak aldean jaten genuen. Gero berriz beste lan batzuekin hasten ginen: txerriak atera, gatzagia egin, gauzak pronto jarri gaztak egiteko... On-do ilunduta gero joaten ginen ohera.

Noiz arte egiten zenituzten gaztak?

Santiagok arte aritzen ginen. Hasi ere berandu egi-

Oheari kamaina esaten genion. Azpian txilarra jartzen genuen eta gainean manta zahar bat.

ten ginen. Martxoan, Sanjo-setan hasten ginen arkumeak kentzen. Santiagotan txerriak saltzen baziren, gazta egiteari uzten genion. Eta ez baziren saltzen, pixka batean aritu egin behar, txerriari gatz-ura ematearren. Gatzurarekin ohitutako txerriari gatz-ura emateari utziz gero, brilloa galtzen du.

Behin Santiago eguna ez-kero lasaiago ibiliko zinen, ezta.

Bai, bai. Behin ardiak antzutuz gero izugarrizko alde egiten zen. Ura ere gutxiago ekarri behar zen. Urarekin ibiltzen ginen gaizkiena.

Nondik ekartzen zenuten ura?

Iturriberri deitzen dioten iturritik. Bizkarrean ekartzen genuen ura, baldeetan.

Atsedenerako edo tertuliarako astirik izango zenuten bada.

Bai! Gure txabolan izaten ziren inguruko artzainak, estu-estu, kontutan.

Argia egiteko zer erabiltzen zenuten?

Kinke lehenengo. Ez ginen berehala enteratu, baina harek sudur zuloak kaltetu egiten zituen. Kiratsa ikaragarri txarra botatzen du. Gero argizariarekin hasi ginen. Baina hura berriz garestia zen garai hartan eta argizari asko behar izaten zen. Azkenean, askotan, egurrak ematen duen su argiarekin moldatzen ginen. Egurra ona ibiltzen genuen, ondo

Manuel Otaño

Donostian parke etnografiko bat egiteko diseinua egiten ari zela, Oidui saroiara joan Manuel Otaño. Jexux Mendizabal artzainak egindako txerritokia ikusi eta liluratuta gelditu zen. Harrezkeroztik zaldibiarren ondoan dabil, Oidui saroiari eta garai bateko artzantzaren bizimodua gehiago jakin nahirik. Informazio guztia biltzen ari da donostiarra eta hainbat txabola eta ilor txukuntzen ere bai.

Era honetan, Oidui saroiaren dagoen ondarea berreskuratu eta zaindu nahi du Otaño, jendeak ikusi eta gozatzeko, baina turismotik erabat aldentuta. Batez ere, haur eta gaztetxoei zuzendutako proiektua egin nahi du Otaño, garai batean artzainen bizimodua izan zena ulertzeko.

Proiektua aurrera eramateko "lan zibikoaren kultura" eraman nahi du aurrera, eta herriarren partehartzea bultzatuz. Zaldibiako Udalaren laguntza badu proiektuak. Zaldibian "oso ondo hartu dute proiektua, sentimentu handia baitago artzainen eta Oidui saroiaren inguruan". Horren adibidea da, Zaldibia herriaren sarreran jarri berri duten trikuharria. "Lehenengo eran jarri genuen harria eta kolore guztietako zaldibiarrek elkartu ziren eta hori gauza handia da", adierazi du Otaño.



Manuel Otaño, Jexux Mendizabalen ondoan. Txerritokiaren aurreko pareta eraiki dute.

ihartutako pago egurra. Txabolak tximinirik ez zuen izaten eta egurra ona behar izaten zen, ondo moztutakoa eta bere garaian moztutakoa.

Zein garaitan ebakitzen zenuten?

Ilberrian. Txabolaren barruan, suaren gainean zegoen apalean jartzen genuen, ihartzen. Kandelak bezalaxe koxe sua egiten zuen.

Ardiez gain, txerriak ere

bazenituzten, txerrikian.

Denek edukitzen zituzten txerriak, 4 edo 6. Santiagotan saltzen genituen, etxerako bat utzita. Gatz-ura ematen genien.

Txerria Sanmartinetan hiltzen al zenuten?

Udazkenean. Aurretik txerria pixka bat gizendu eta gero hil. Orduan txerria asko erabiltzen zen, ardia ere bai. Bestela, nola bizi. Bizio

handirik ez garai hartan eta. Gaur egun bezala ogia jan izan bagenu! Taloa eta esnea jaten genituen.

Oiloak ere ikusi ditugu.

Bai, beti izaten ziren oiloak. Gaur egun oilo gutxi dago, piztiek eramaten dituzte eta.

Gaur egun pizti gehiago al dago?

Bai, lehen harrapatu egiten genituen eta orain ez dute harrapatzen uzten. Orain ar-

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

**Garai berrietarako
ideia berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

tzainak ere ez dira bizi hemen. Kotxea daukatenak, bideetan ibiltzen dira. Gu berriz, hamabostetik behin edo zortzian behin joaten ginen etxera, mantenua ekartzera.

Ardi mozten zein garaitan ibiltzen zineten?

San Antonio eta San Pedro bitartean.

Eskuz egingo zenuten...

Bai, elkarrekin egiten genuen, batak besteari lagunduz.

Elkarlanean aritzen zineten, beraz.

Orduan auzolana handia zen. Ardiak txandan mozten genituen. Batak bestea laguntzea, gaur egun baino gehiago zen. Udazkenean, bat lehenago joaten bazen, ardiak ondokoak zainduko zizkion. Gaur bakoitzak berearekin segi aurrera.

Artzain bakoitzak bere ardiak ondo ezagutzen omen ditu.

Bai, bai. Artzainak bere ardiak ondo ezagutzen ditu, asko izan, gutxi izan. Haien aurpegiak ondo ezagutzen ditugu. Orain seinaleak jartzen zaizkie, baina garai batean ez zen pinturarik.

Haserrerik izaten al zen artzainen artean?

Orduan ere izaten ziren. Bati ardiak aurretik jarri dizkiola, atzerago jarri behar zirela... orduan ere nobedadeak izaten ziren. Baina orduan sanoxeago ibiltzen ginen, lasai. Txabolak asko itxi gabe ibiltzen ginen, lasai asko. Sanotasun handiagoa zegoen.

Asko aldatu da beraz.

Bai, asko.

Noiz aldatu zen artzaintza?

Industria sartu zenean. Artaldeak txikiak ziren aurre-



tik eta industria hasi zenean, ardi gehiago erosten hasi ginen. Biloren artzain asko hasi ziren. Askok alde egin zuten. Bi anai gelditu ginen hemen.

Ezin etsi?

Ez dakit, gu honerako izan gara behintzat.

Ardiek gaixotasun asko izaten al zuten?

Bai, asko. Hanka hautsiak asko. Guk lotzen genizkien. Gaixotasunak ere askotan: baremina, odolmina, erraina... Batzuk ateratzen genituen eta beste batzuk ez, baina asko salbatzen genituen garai hartan. Odolaren golpea zen garaian, ardiei belarritik odola ateratzen zien gure aitek eta ardi asko salbatzen zituen. Orain hainbeste dagoen sarnarik ez zegoen. Gaur a ze lanak ematen dizkien! Orain hasi dira indizioak ematen. Lehen bainatu egiten ziren. Ze lanak, ze gastuak! Azkurea ematen du sarna horrek.

Eta artzainek?

Ez gara katarro asko harra-

patutakoak! Hildakoak badira, ardi asko amiltzen ziren eta artzainak ere bai. Ardi batzuk kanala esaten zitzaion lekuan sartu eta haiek ateratzera zihoazen garaian, artzainak joan eta bertan hildakoak badira. Bi lekutan badira gurutzeak Oidui inguruan, hildako artzainen omenez. Handik pasatzen ginen bakoitzean, 'Aita Gurea' esan beharra zegoen.

Neguan Bizkai aldera joaten al zineten?

Ez. Beasainen egoten ginen etxe batean. Hango etxeok andre zaharrak esaten zuen, 40 urtetik gora zirela joaten ginela. Gero Zaldibian egoten ginen. Zer edo zer egin beharrean gertatu ginen eta Olaberrin lurra erosi eta pabilioia, borda egin genuen. Han beste 14 bat urte pasa genituen. Baina han geundela, saneamenduko kanpainan, ardi guztiak kendu zizkiguten. Hildakoak baino okerrago gelditu ginen. Etxean ardiak ahazteko esa-

ten ziguten, baina ardirik gabe ezin bizi. Ezin etsi eta hala berriz ere, mordoxka bat erosi genituen. Ardi mordoxka harentzat handiegia genuen borda. Haiekin bakarrik ezin ibili eta gehiago jartzeko gogo handirik ez... Negua pasatzeko eskatu ziguten urte batean eta hurrengoan erosi egingo zigitela. Gure etxean denak kontra, saltzea hobe genuela, eta hala saldu genuen.

Ardirik ez daukazu orain, baina orain ere udaberria iristeko irrikitan egongo zara Oiduiara igotzeko, ezta?

Bai, ikaragarri luzea egiten zait negua. Han ere baratza badaukat, oilotegia ere bai, haria egiten ere aritzen naiz...

Haria ere egiten al duzu?

Bai, eta galtzerdiak ere bai. Aitak haria egiten zuen eta ama galtzerdiak egiten zen markakoa. Haren hatzapurretan bazen indarra. Izugarri galtzerdi onak egiten zituen, estu-estuak.



kutxa

Duela 100 urteko Oiduiko saroia

Jexux Mendizabal zaldibiar artzainaren datuetan oinarrituz, Manolo Otaño duela 70-100 urte Oiduiko saroia nolakoa zen aztertzen ari da. Horrekin batera, guztia marrazki bidez irudikatzen ari da. Duela mende bete artzainek egindako txabolen eta ilorren berri eman digu, Jexux Mendizabalek.

Zenbat txabola ezagutu dituzu Oiduiko saroian?

8 artzain ezagutu nituen. Gero bakantzen hasi ziren eta orain bi artzain daude. Ardi pila galanta badauzkate.

Bi artzainek, orduko 8 artzainek baino ardi gehiago edukiko dituzte agian.

Gertu ibiliko dira.

Nongoak ziren Oiduin egoten ziren artzainak?

Gehienak Zaldibiakoak; ataundarren bat ere bai.

Nolako txabolak ziren?


Zelebrea, txiki-txikiak. Artaldeak ere txikiak izaten ziren: 100, 60, 80...burukoak. Ez dakit nola mantentzen ginen hain ardi gutxi-rekin garai hartan. Sesinea, gazta, baratzen izaten zena... jan eta horrelaxe hazi ginen gu.

Ohea nolakoa zen?

Oheari kamaina esaten genion. Azpian txilarra jartzen genuen. Askok garoa jartzen zuten, baina garoa oso zikina da. Txilar batzuk harro-harroak izaten ziren. Aizkorarekin atera, zuztar handienak kendu, eta haiek jartzen genituen lurrean. Gauean manta zahar bat jartzen genuen txilarren gainean, eta beste manta bat gainean. Garai hartan hoztu ere ez ginen egiten. Kamaina kaskar batean hantxe lo egiten genuen denok, batzuk aurrera eta besteak atzera. Gero laster ekarri zen jergoia. Xelebre.

Platerak, ontziak...

Denok, egurrezko apatze-



Txabolaren egitura

Artzainak txabola utzi zuen bezalaxe dago argazkian ikus daitekeen txabola. Barruan, ezker aldean, sua dago; suaren gainean, apal bat, bago egurra txikituta, ihartzen jartzeko; suaren beroarekin ihar-ihar eginda jartzen zen, eta kandelak bezalako argia egiten zuen; bestean ohea. Armarioa, eta atzealdean, gaztalekua.

Sarreran, estalpea. Eltzea bertara ateratzen zen, brasa aterata, suaren beroak, gaztak hondatu ez zitzen. Beste sutoki bat ere bazuten, kanpo aldean.

tik jaten genituen babak. Beste apazko txikiago bat ere bagenuen. Handik, talloa eta esnea jaten genuen. **Nolako teilatuak zituzten?**

Nik teilazko teilatuak ezagutu nituen. Baina txerritokiari eta ilorrari, garoa jartzen zitzairen. Lan ikaragarriak egiten genituen garai hartan garoa mozten. Ga-

roa lotu egin behar da fuertea, haizeak ez dezan eramane. Garoa kentzen hasten zarenean, atzera kendu egin behar zaizkio egurrak. Garoa kristo etxetik ekarri behar duzu. Lana ikaragarria du. Halaxe erakutsi ziguten, eta halaxe segi.

Neguan txabolak asko hondatzen al ziren?

Garai hartan txabolak ireki egiten zituzten eta trasteak hartu eta eramane. Estalpea irekita uzteko obligazioa geneukan.

Baratza ere izaten zenuen.

Aza eta patata edukitzen genuen baratzen, porrua gutxi. Oso lur gozoa dago. Hemengo aza, zoragarria da, biguna jateko. Patata ere, ona. Artaberdea, aharientzako egiten genuen. Gaur egun denetik daukat baratzen, marrubiak ere bai. Hemengo barazkiak samurragoak dira.



Txerritokia

Orain egurrak dauzka jarrita, garoaren gainean, baina lehen ez zuen egurrik izaten. Behorrek garorik ez jateko dauzka jarrita Jexuxek. Bi urtean behin jartzen zaio garo berria.



Goieniz: kalitatezko zinema ostegunetan

Hamaika urte daramatza Goieniz Zine Klubak, kalitatea, aniztasuna eta konpromisoa ardatz hartuta, goierritarrei zinema eskainiz. Urtean 20 emanaldi egiten dituzte, beti jatorrizko bertsioan eta azpititulatuta. Azken aldian

jende gaztea sartu da antolakuntza taldean. Hori dela eta, 11 urte hauei errepaso egiteko hasieratik lanean ari den Mikel Lasarekin eta ikusle izatetik lan taldera jauzia eman berri duen Leire Iturriozekin eseri gara mahai inguruan.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

1995eko martxoaren 2an, Sergio Cabrera zuzendaria-
ren 'La estrategia del caracol'
filmarekin estreinatu
zen Goieniz zine kluba.
Izugarritzko jende pila joan
zen lehen emanaldi hura
ikustera. Zinema egarria ze-
goen.

Harrezkero ikusle fide-
lak ere badituzte, urte asko-
tan etengabe jarraitzen du-
tenak. "17 ziklotan egon
den bat ere badago. Baina,
jende gaztea hurbiltzen da
batez ere. Horrek esan nahi
du, momenturen batean
norbaitek utzi egiten diola
etortzeari eta berriak sar-
tzen direla", dio Leire Itu-
rriozek. Duela 2-3 urte izan
zuten ikusle kopururik han-
diena, 180 abonatuatik gora.
Azkenekoan, 130 inguru
izan dituzte. Normalean le-
henengo zikloan, urritik
abendura, izaten da abona-
turik gehien". Zinemaldiak
ere izaten du eragina, zine-
rako grina pizten duela di-
rudi".

Goierri osorako

1995ean Beasaingo Usurbe
zinema aretoa martxan jarri
berria zen eta aurreko ha-
markadan Goierriko Zine
Klubean ikusle izan ziren
lagun batzuk, eta antola-
tzaile izandako bakarren
bat elkartuta, Goieniz sortu
zuten. Bai lehenaldi hartan,
bai bigarrenengo honetan, zi-
ne klubak beti izan du
Goierriko izaera. "Beasai-
nen edo Ordizian eman, es-
kualdeari begira sortutako
talde bat izan behar zuela
garbi geneukan. Gaur egun
dauzkagun abonatuak ze-
rrenda ikusi besterik ez da-
go: eskualde osoa dira",
zehaztu du Mikel Lasak.

Aurrekariak

80ko hamarkadan Goierri-
ko Zine Kluba taldeak Ordi-
zian egin zituen emanal-
diak. Bertan zebilen jendea
ez zen Ordiziakoa bakarrik,
eskualdeako baizik. Garai
hartan Donostiako Zinema-
naldiak herriz herri ibiltzen

zen atal bat zuen, 'Barrios y
pueblos'. Horietariko bat,
Ordizian eskaintzen zuten.
Emanaldi horien inguruan
bildutako jendeak sortu
zuen Goierriko Zine Kluba.
Franco hil ondorengo urte-
etan kultura munduan mu-
gimendu handia egon zen,
zine klubak sortzeko garaia
ere izan zen.

Orduan, zine klubak
kontzeptualagoak ziren.
"Aldizkari zaharretan ikus-
ten da: kritikak askotan, hi-
ru orrikoak izaten ziren, ar-
gazkirik gabe, oso astunak.
Hausnarketarako gogoia ze-
goen. Eta bazirudien zine
klubeko pelikulak, ulertzen
zailak, hausnarketa luze-
ak... izan behar zirela", iri-
tzi dio Lasak. Garai konkre-
tu hartan sortu zen Goierri-
ko Zine Kluba hori bukatu
zen.

90eko hamarkada buka-
eran zine klubak loraldi be-
rria egon zen eta garai hor-
tan izan zen Goienizen sor-
rera. Izaera ezberdinarekin
sortu ziren. "Zine klubeko-
ak aspergarriak ginela, peli-
kula ulertezinak, txuri-bel-
tzean eta azpititulatuta bo-
tatzen genituelako ustea ze-
goen. Masokistentzako zi-
nea zela uste zuen jendeak.
Gaur egun hori ez da ho-
rrela. Fama hori behintzat
kendu dugu gainetik", dio
Mikelek.

Jatorrizko bertsioan

Hori bai, orain ere peliku-
lak azpitituluekin ematen
dituzte, nahiz eta Leire Itu-
rriozek zehaztu nahi izan
duen: "Azpitituluen alde
baino gehiago, jatorrizko
bertsioaren aldekoak gara.
Jendeak irakurtzerakoan
galdu egiten dela esaten du
eta hori da daukan alde txar
bakarra. Baina, pelikula ja-
poniar batean samurai bat
erdaraz entzutea ez da logi-
koa, euskaraz ere ez. Uste
dut neurri batean topikoa
dela azpitituloena. Jatorriz-
ko bertsioan, aktoreek ema-
ten duten sinisgarritasuna,
antzezpena entzun egiten



Kalitatea, aniztasuna eta konpromisoa

Lehenik eta behin zinea gustatzen zaie Goienizko partai-
deei. Zinea ez dute ikuskizun soil bezala ikusten eta kul-
turaren aberasgarri izan daitekeela diote. Oinarri horrekin
Goierri eskualdean kalitatezko zinema eskaintza zabala
programatzea da Goienizen helburua. Filmak aukeratze-
ko garaian hiru irizpide dituzte: kalitatea, aniztasuna eta
konpromisoa.

Beste irizpide bat ere badute, herrialde eta estilo
aniztasuna, munduko toki ezberdinetako pelikulak ekar-
tzea. Zinea ere izan dadila beste herrialde batzuk ezagu-
tzeko tresna.

Zine klubean parte hartzen dutenek herriko zinean
hutsune bat dagoela ikusten dute, kontsumoko zinea ba-
karrik ikusten dela. "Guretat zinea hori baino gehiago
baldin bada eta hori herrian ikusteko aukerarik ez ba-
daukagu, beste aukera bat eskaintzen dugu. Nik zinea ez
dut denborapasa bakarrik izango balitz bezala ikusten.
Niretat zinea, literatura edo beste arte motak bezala da,
zerbait aportatzen duena. Mundura zabaltzeko oso bide
egokia da zinea. Mundu ikuskera zabal dezakezu zinea-
rekin", argitu du Mikel Lasak. Bera da Goieniz-en hasie-
ratik antolatzaile taldean dirauen bakarra.

Taldea irekia

Ohitura bihurtu da ostegunetan, 21:00etan zinemara joa-
tea. Boletina abonatuak etxera bidaliz, film kuttuna anto-
latuz... ikusleak Goienizera gerturatu nahi dituzte antola-
tzaileek. Horren ondorio da 5-8 lagunek antolakuntza
taldean belaunaldi berriak sartzen joan izana. Guztira 20-
25 lagun aritu dira lan horretan. Aldaketa horren adie-
razgarri, hasierako taldean denak mutilak ziren eta azke-
na sartu diren kide berri guztiak, berriz, neskak dira.



Zinema euskaraz

Goienizen euskarazko azpitu-loak duen filmeren bat edo beste eman dute, baina oso gutxi dira horrelako aukerak. Eta euskal zinemaz, ez da oso baikorra Mikel lasa: “Orain pixka bat pizten ari dela dirudi. Iaz ‘Aupa Etxebeste’ izan zen, orain ‘Kutsidazu bidea, Ixabel’... Euskaraz sortutako pelikula batzuk egiten hasi dira. ‘Zergatik Panpox’, ‘Kareletik’, ‘Mikelen heriotza’... egin ziren eta gaurdaino basamortua izan dugu. Beraz, euskal zinea bezala Julio Medem, Juanma Bajo Ulloa zuzendarien lanak saldu dira, nazioarte mailan zine proiektzio ona daukatenak, baina ez dakit hori euskal zinearen barruan ulertu behar dugun. Izan ere, euskal zuzendariak izanagatik, Madriletik egin da guztia, Madrileko diruarekin eta Madrileko aktoreekin”.

Euskal zineak, euskal kulturak dituen zailtasun eta hutsune guztiak eta gehiago dauzka. “Musikan eta literaturan bezala merkatua txikia da... eta zinea oso produktu garestia da. Oraindik zailagoa da zirkuito komertzial batean funtzionatzeko duen zinea egitea. Nahiz eta merkatu txikia, musika talde bat osatu, maketa bat egin eta cd ekoiztea ez zaie hainbeste kostatzen. Beste gauza bat da salduko den ala ez. Baina pelikula bat egiteko diru asko jartzen da mahai gainean eta ezin dira cd bat bezala pelikulak bota, defizitarioak dira-eta. Azkenean, erakundeen eta dirulaguntzen menpe egon behar du zineak. Laburmetraia bat berekasa agian egin dezake zuzendari batek, baina pelikula bat ez. Zaila da. Zine industriarik ez dago, merkaturik ere ez. Kontraesana dirudi baina zuzendariak, aktoreak eta teknikoak, oso onak daude Euskal Herrian”.

kloa (apirilean egiten dugun zine klasikoaren bilduma) ikustera joatea. Baina hori zine klubaren oinarriko apustueteriko bat da, bestela zine programazio normaltxo bat egiten bukatuko genuke”, dio Mikel Lasak.

Film laburrak hasieran, zikloaren barruan ematen zituzten, pelikula bakoitzaren aurretik. Baina, “aldatu izan ez bagenu, zine kluba desagertuta egongo zen aspaldi!”, diote. “Jendeak oso gustura ikusten zituen baina izugarritzko buruhaustek eta estresa sortzen zizkigun antolaketan. Askotan egunean bertan, film laburraren lata ixtrin hori iritsi gabe egoten zen. Halako mezularrarekin bidali zutela... Hori guztia zergatik? Banaketa normalizaturik ez zegoelako. Zuzendariak ia-ia besapean eramaten du laburmetraia. Zuzendariarekin, bere amarekin, neskalagunarekin... ibili behar izaten da harremanetan... Antolaketan izugarritzko lana sortzen zuen eta ikusi genuen horrela ezin genuela jarraitu”. Horren alternatiba izan zen, urte bukaeran, emanaldi bakar batean biltzea. Batetik antolaketa aldetik errazago dutelako, eta bestetik, biltze horrek koerentzia bat ematen duelako.

Kultura=dirulaguntza

Kultur aktibitate den aldetik, bizi-irauteko dirulaguntzak beharrezkoak ditu Goienizek. Mikel Lasak dioenez, “sarrerak bestela askoz ere garestiago jarri beharko genituzke. Hori ere ez dugu nahi: ahal den neurrian, merkea izatea nahi dugu, ahalik eta jende gehiena joateko. Prezioa igotzeko esaten digute askotan, baina hori ez da kontua”. Horren adierazgarri da, 1995ean txartelak 450 pezeta balio zuela, 6 pelikulako abonotak, berriz, 2.000 pezeta. Gaur egun, 3,50 balio txartelak eta 8 pelikulako ziklo-

da, hor dauka indarra, nahiz eta gazteleraz dagoen bikoizketa nahikoa ona den. Adibidez, munduko herrialde gehienetan, zine komertziala azpitu-tutua da eta jendea ohituta dago”.

Urteko emanaldien antolaketa

Urtero 20 film inguru ematen dituzte, 8 filmeko bi ziklo izaten dira, urritik abendura eta urtariletik apirilerara. Honez gain ‘Begirada’ ziklo berezia ere izaten dute.

Ziklo arrunt batean, denetik sartzen saiatzen dira. “Ideiak botatzen joaten gara, zerrenda bat osatuz. Zerrenda hori murrizten joaten da, 8 pelikularaino. Estilo eta herrialde ezberdinetako-

ak izan daitezten hartzen dugu kontuan”, dio Mikel. Donostia izaten dute inspirazio edo erreferentzia iturri, pelikula gehienak Donostian estrenatzen baitituzte. Han ikusitakoak, edo liburuetan eta aldizkarietan irakurritako kritikan oinarritutakoak izaten dira gehienak.

Film Kuttuna

Ziklo bakoitzean ikusleen proposamenak jaso, 5 filmeko zerrendatxo bat osatu eta ondoren, bozketa bidez, ikusleak aukeratzen duen pelikula izaten da Film Kuttuna. Pelikula hori hurrengo zikloan ematen saiatzen dira Goienizko antolatzaileak. “Film Kuttunaren sorrera eta abonatuak egitearen

helburua, jendea inplikatzeko nahia da, ikusleari parte hartzeko aukera ematea. Ikuslearengandik gertu egoten saiatu izan gara, aurreko zine klubak, elitista eta intelektual fama baitzuen”, argitu du Mikel Lasak.

Gau laburra

Laburmetraien bilduma bat ere ematen dute saio berezi batean. Sorreratik zine laburrari tarte egitea izan da Goienizkoen helburua, zinearen harrobia bultzatzea delako. Gaur egun oso zaila da film laburren emanaldiak egin eta jende asko erakartzea. “Kosta egiten da. Jendeak zerbait arraro bezala ikusten du. Minoritarioagoa da film laburrak edo Goieniz Begirada zi-

rako abonoak, 15 euro. Beraz, 11 urte hauetan ez du igoera handiegirik izan sarrearen salneurriak.

Urteko aurrekontua osatzeko dirulaguntza nagusia Beasaingo udaletik jasotzen dute. Gainerakoa, Foru Aldunditik (Giziel, Gipuzkoako Zineklubaren Elkartearen bidez), Kutxatik eta Euskadiko Kutxatik datorkie.

Filmen kontratazioak

Emanaldi bakoitzerako pelikula kontratatzen (200 eurotik hasi eta 400 euro bitartean, banatzailearen arabera), Usurbe aretoa alokatzen eta esku programaren inprimaketan joaten zaie diru kopururik handiena.

Antolakuntza aldetik, kontratazioak denen artean banatzen dituzte. Banatzaileek Goienizkoak ezagutzen dituzte eta beraientzat prezio bat badute ere askotan negoziatu beharrean izaten dira. Afixak eta fotogramak ere bidaltzen dizkiete banatzaileek.

Pelikula Beasaina iristen den egunera arte jarraipena egin beharra izaten dute Goienizkoek. "Aurten bertan, banatzaile berdinari bi pelikula erosi genizkion eta alderantzizkoa (aurrerago eman beharrekoa) bidali ziguten. Azkeneko unean iritsi zenez ez genuen aldatzeko denborarik izan eta programazioa lehenengo aldzik, aldatu beharra izan genuen", gogoratu du Mike-



Ainhoa Awlfageme, Julen Arina, Pepe Erauskin, Mikel Lasa eta Jabi Carnicer, Goienizen basieretako bilera batean.

Beste garai batzuk ziren

Goienizen lan egiteko modua finkotua dago gaur egun, baina hasiera haietan proba ezberdin asko egin zituzten, "beste freskotasan batekin lan egiten genuen. Ganberroagoak ginen. 1998an, zinemaren mendeurrena ospatzeko emanaldi berezi bat egin genuen, kamara batekin aritu ginen jendea grabatzen, batzuk aktore bezala jarri genituen... 1998ko uztaietan, 16 mm-ko proiektorea hartu eta herriz herri ibili ginen, zinea aire zabalean eskainiz. Lan handiak hartu genituen, Jauregi Toldoetan toldo txuria egin eta izugarritzko pisua zuen toldo hura pilotalekuetan zintzilikatzea ez zen erraza izaten. Puntarik punta ibiltzen ginen". Orain horrelakorik egiten ez badugu ere, meritua da urtez urte bizirik irautea.


lek. Gainontzean, azken uneko larrialdi asko pasatu badituzte ere, modu batera edo bestera, beti ondo atera izan zaie.

Itxuraren garrantzia

Ziklo bakoitzerako kalartzen dituzten liburuxkek eta

kartekek garrantzi handia dute Goienizkoentzat, horiek baitira elkartearen irudia. "Beste zine klubetakoe-kin elkartzen garenean, daukagun diseinua azpimarratzen digute. Gu izango gara hain beste lantzen dugun bakarrak. Josetxo Sastre

diseinatzaile grafikoak lan handia egin izan du Goienizen irudia zaintzen", dio Lasak. Josetxo Goienizko partaide ez bada ere, beti izan dute laguntzaile fina eta beraien inprimakiek izandako eboluzioan garbi ikusten da disenatzailearen eskua.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Musikarekin gozatuz, hazi eta hezi

Lazkaoko Musika Eskolan haurdunentzako eta 0-3 urte bitarteko haurrentzako tailerrak eskaintzen dira



Musika bitarteko hartuta, haurren garapen integrala lortzea dute helburu, Lazkaoko Lazkao Txiki Musika Eskolan antolatu dituzten bi tailerrek. Beatriz Garcia irundarra, Musika Hezkuntza goiztiarrean espezialista da irakalea eta musikaren onurak aldarrikatzen ditu, guraso eta seme-alaben arteko harre-

mana estutzeaz gain, haurren garapenerako tresna lagungarria delako. Esparru publikoan, Musika Hezkuntza goiztiarra, Lazkaon eskainiko dute lehenengo aldiz. Bi tailer antolatu dituzte: bata, 6. hilabete-tik aurrera haurdun dauden emakumezkoen zuzendua eta bestea, 0-3 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9
© 943 16 25 23
LAZKAO

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran
☎ 943 18 72 57

Ikerketek diotenez, 6. hila-
betetik aurrera, amaren sa-
belean dagoen haurrak, en-
tzumena garatua du. Era ho-
rretan garai horretatik aurre-
ra, musikaz baliatuz, ama-
ren eta haurraren harrema-
na estutzeko metodologia
erabiltzen du Beatriz Gar-
ciak Lazkaoko Lazkao Txiki
Musika Eskolan. “Emakume
haurdunekin klaseetan
abesti asko abesten ditugu
eta ahotsa da umearekin
kontaktuan jartzeko bide
bat. Haurrak seigarren hila-
beteaz geroztik entzun egi-
ten du. Gainera amaren
ahotsa modu berezi batean
entzuten du, uhinen trans-
misioa ez baita aire bidez-
koa, gure kasuan bezala.
Transmisioa, likidoaren eta
hezurren bidezkoa da.
Amaren ahotsa modu berezi
batean jasotzen du haurrak
eta horregatik ezagutzen
du. Horregatik ematen zaio
hainbesteko garrantzia
abestiari”, argitu du irunda-
rrak.

Beatriz Garciak, Musike-
nen Musika Hezkuntza
goiztiarraren ikasketak egin
ondoren, Italian egin du ur-
tebete Gioanella Taffuri ira-
kaslearekin. Bere metodolo-
gian oinarrituta lan egiten
du Lazkaon. Esperientzia ai-
tzindaria da gure artean.
Abestu, mugimenduko ari-
ketak, hainbat instrumentu
txiki jo, entzumenezko ari-
ketak... “Jolasaren bidez lan
egiten dugu. Guraso eta
haurraren arteko tarteaz
hau da, jolasteko garaia”, dio
Garciak. Jolasaren bidez,
haurraren garapen integrala
lortu nahi da: “Hainbat ari-
ketekin, hankak indartzen
dizkiogu haurrari, lau oine-
tan ibiltzeko eta oinez ibil-
tzeko. 2-3 hilabeteko hau-
rrei, lepoa gogortzeko ari-
ketak egiten dizkiegu, mus-
kuluak prestatuz. Ariketa
asko dira, bere garapenera-
ko lagungarriak, guztia, mu-
sika oinarri hartuta. Musika
da bidea, haurraren garape-
na bultzatzeko”, gaineratu
du. Haurraren memoria lan-

Heavy metal musika ere, lasaigarria

Irungo Beatriz Garcia Rodri-
guez Musikenen ikasia da eta
bertan egin ditu Musika Hez-
kuntza goiztiarra ikasketak.
Italian urtebete egin zuen Gio-
anella Taffuri Boloniako musi-
ka irakaslearekin. Sei hilebete-
ko ama haurdunekin hasi eta
0-3 urte bitarteko haurrekin
musika bitarteko hartuta hain-
bat ikerketa egiten ari da Taf-
furi. “1998an hasi zuen ikerke-
ta. Bere ikerketarekin baieztatu
nahi du, edozeinek abeste-
ko gaitasuna daukala, ondo
afinatzeko eta ondo abesteko,

baina premisak egon behar dira hori gertatzeko eta horietariko bat hezkuntza da. Hez-
kuntzarekin ia ziur pixkanaka-pixkanaka abesteko gaitasuna izango da”. Ikerketaren ba-
rruan, musikarekin haurraren garapen integrala lortzea da helburua. “Umeak jaio aurre-
ko memoria duela dio. Hau da, haurra amaren sabelean dagoenean, zenbait soinu en-
tzuten ditu: amaren ahotsa, bihotzaren taupada, kanpoko hotsak... ikerketa ugari dau-
de esaten dutenak, amaren sabelean dagoenean egunero abesti ber-bera entzuten ba-
du, gero jaiotzen denean, abesti hori ezagutu egingo du eta nola dakigu hori abesti ho-
ri ezagutzen duela? Egiten duenaren arabera: lasaitzen bada, begiak ixten baditu... eza-
guna zaion zerbait entzuten duelako lasaitzen da”.

Baieztapen horren adibide da, beste ikerlari australiar batek egin zuen ariketa: “ema-
kume bakoitzak, haurdunaldian, egunero, bakoitzak aukeratutako abesti bat entzuten
zuen. Edozein estilotakoa. Batek, heavy metal musika gustatzen zitzaion eta hala en-
tzuten zuen. Haurrak jaio zirenean, guztiak gela batean sartu eta emakume bakoitzak
aukeratutako musika jartzen joan ziren, ume bakoitzaren erreakzioa ikusteko. Ume ba-
koitzak bere musika ezagutzen zuen eta lasaitu egiten zen era batera edo bestera. Ku-
riosoa izan zen, heavy metal musikaren txanda iritsi zenean, beste umetxoak aztoratu
egin ziren baina egunero heavya entzuten zuena, lasaitu eta lo gelditu zen”.

Edozein musika mota

Beatriz Garciak adierazi duenez, “esperimentu horrek hainbat mito puskatzen ditu. Hau
da, haur txikiari musika klasikoa jarri behar zaiola esaten da. Hori ez da egia. Haurrari,
amari gustatzen zaion musika gustatzen zaio. Amak gustatzen zaion musika entzuten ba-
du, ama lasaitu egingo da eta gustura egongo da. Haurrari hori transmitituko dio. Eta
alderantziz, gustatzen ez zaion musika entzuten badu, ez da lasaituko, isterika jarriko da
eta haurrari hori transmitituko dio”.



tzeko ere oso baliagarria da
musika, Garciaren esanetan.

Irundarrak garbi dauka
hain txikitatik musika ikas-
tearen helburua ez dela
“Mozart bat egitea, momen-
tu on bat pasatzea baizik
haurraren eta gurasoen arte-
an. Momentu berezia izatea
beraiek gozatzeko, beraien
harremana indartzeko. Gaur
egun, gurasoek ez daukate

denbora gehiegirik beraien
seme-alabekin egoteko eta
ikasturte honetan seme-al-
bekin egoteko denbora har-
tzeaz gain, nola egin behar
duten ikasiko dute, jolastuz
eta hezkuntza emanez”.

Adibide ugari

Iaz Italian ikasitakoa prakti-
kan jartzeko aukera izan
zuen Beatriz Garciak, Don-

nostian ikastetxe pribatu ba-
tean. Han ikusitako hainbat
adibide kotatu dizkigu: “3
urteko neska bat neukan
eta bere ahizpa txikia jaio
zen. Aitak esaten zidan, je-
loskor zegoela eta ahizpa
txikiak egiten zituen gauzak
egiten zituela. Astero aita
alabarekin etortzen zen eta
beraien denbora zen. Hasie-
ran jokaera txar samarra

zeukan neskatila horrek, baina pixkanaka-pixkanaka lortu zuten aitaren eta alabaren arteko harremana indartzea. Momentu bakarra omen zen bere alabari bakarrik eskaintzen ziona”.

Beste bi ahizpen kasua ere kontatu du: “bi ahizpa etortzen ziren, bat 3 urtekoa eta bestea 4 urtekoa. Jeloskor omen zeuden biak. Ariketa batean, zaldi itxuran egoten ziren, eta klasean bakoitzak, bere amarekin edo aitarekin egiten zuen. Ba bi ahizpa horiek, etxean jolasten aurkitu zituen amak, beste jarrera bat hartu zuten”.

Euskarazko material gutxi

Euskarazko materiala erabiltzen dute tailerretan, nahiz eta Beatriz Garciak onartu, aukera gutxi samarra dagoela: “Material gutxi dago. Itzulpenak egin behar ditut, edo Aita Donostiaren abesti asko erabiltzen ditut, edo bestela, asmatu. Urtxintxak ere egiten ditu baina handixeagoentzat”. Hori bai, “eskuekin jolasteko abesti asko dago euskal kantutegian. Bere gorputzaren ezagutza izateko, sikomotrizitate fina lantzeko... balio dute”.

Abestearen onurak

Ikastaroetan parte hartzeko baldintza bakarra, musika gustatzea da. “Ez da beharrezkoa ondo kantatzen jakitea, denborarekin lortuko da”, dio Garciak. Haurrari abestea oso garrantzitsua dela dio: “okerragoa da ez abestea, gaizki abestea baino. Abesteko erak du balioa, jarrera positiboak, jarrera alaiak... Hori transmititzea da garrantzitsua, harremana indartzeko”.

Gurasoak eta haurrak, musikarekin elkarturik

Lazkao Lazkao Txiki Musika Eskolan ostiraletan, arratsaldetan, eskaintzen dira haur txikienentzako ikastaroak. Zehatzago esateko, haurrentzako eta ama edo aitarentzako. Baldintza, bakarra da: musika gogoko izatea.

Haurdunentzat

Haurren eta amaren arteko harremana sendotzeaz gain, haurdunentzako musika tailerrean, erlaxatzeko eta arnasketa ariketak ere lantzen dira, erditze garaian oso baliagarriak direnak, “musikaren bidez zure haurdunaldiaz gozatuz”.

Horrekin batera, musikan oinarritutako errekurtsoak ere erakutsiko zaizkio: haur kantak, erretolikak, ipuin musikalak, dantzak, jolasak..., ikasturtean zehar ikasitako ekintzak norbere etxean erabiltzeko.

0-3 urte haurren tailerra

Musika maitatzen ikastearekin batera, musika bitarteko hartuta, haurren garapen integrala bultzatu nahi da. Haur kantak, erretolikak, ipuin musikalak, korroak, dantzak, jolasak... erabiliko dira haurren garapena sustatzeko.

Aldi berean, ere badu beste helburu bat, Beatriz Garciak adierazi digunez: “sozializazioa eta komunikazioa garatzea indibidualitatea eta berezkitasuna galdu gabe”.

Ahotsa, entzumena, mugimendua eta musika



tresnen bidez musika munduan murgiltzea lortu nahi da. Umeen gaitasun kognitiboak, psikomotoreak, afektiboak garatzea ikerketa, erabilketa esperimentalketa, interpretazioa eta sorketaren bidez, aro eta estilo ezberdinetako musika-piezei esker.

Gurasoak eta haurrak elkarrekin egoten dira ikastaroan, “haurrek, gurasoen segurtasuna behar dutelako, eta aldi berean, gurasoak ere ikasiko dituzte abestiak, ipuinak... gero etxean egiteko”.

Beraz, etxean jarraipena emateko, “hainbat errekur-

tso ematen dizkiogu amari edo aitari, jakiteko haurrak ere nola jolastu behar duen haurrarekin. Zein kantu mota diren egokiak, jokoak, umeari goxotasunez hitz egin behar zaiola, musikak haurra lasaitzeko balio dela ikusten du”, azpimarratu du Garciak.

Ikastaroan sortzen diren hainbat galderei erantzunak ematen saiatzeko, Beatriz Garcia etengabe dago pediatra batekin harremanetan. “Askotan nire lanarekin zerikusirik ez duten galderak egiten dizkirate eta pediatararengana joan behar izaten dut”.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...
era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

Kaietana Etxeberriaren mondejuak egiteko sekretuak

*"Barazkiak berdín-berdín
txikitu behar dira, eskuz.*

Pazientzia

handia

behar da"



Mondejuaren errezeta bila joan gara Kaietana Etxeberriaren etxera. Bere amari ikusita ikasi zituen Kaietanak mondejuak egiten eta mondeju zuriaren sekretutxoak kontatu dizkigu. Azaroa omen da garairik onena monde-

juak jateko. Sukaldearen saltsa oso gustuko du Kaietanak, 7 urte zituela hasi eta oraindik ere, Lazkaoko Amebi jatetxeko sukaldean aritzen da. Oreindarra jaiotzez Kaietana Etxeberria. Gaur egun, Lazkaon bizi da. 12 seme-alaben ama da.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Mondeju goxo-goxoak egiten omen dituzu.

Beti ez dira igualak ateratzen, beti berdin eginagatik. Materiala da garrantzitsua. Lehen porrua horia izaten zen, baina porru horia oso debila izaten da orain gutxiago aldatzen dute. Porru berdeak min puntua dauka eta ederra eta azkar etortzen da porru berdea. Nik Brinkolatik ekartzen ditut porru horiak. Barazkiak, berdin-berdin txikitu behar dira. Pazientzia handia behar da eskuz txikitzeko. Alde handia dago barazkiak makinaz txikitu ala eskuz txikitu. Eta makinak beste gustu bat ematen dio, berde puntu pixka bat. Nik ez dut makinarik nahi. Nire alabak ere ni bezalaxe egiten ditu, eskuz txikituta. Berookin oraindik ez da mondejuak jateko gogo handirik.

Eguraldiaren arabera jendeak gehiago eskatzen al du?

Bai, baina halere Gaintzan, sanmigeletan hasiko dira.

Ondoko koadroan ondo zehaztu duzu errezeta. Nola betetzen dituzu mondejuak.

Eskuz betetzen ditut hesteak. Inbuturik onena, plastikozko botila, erditik moztuta, da niretzat. Azkenean, sokarekin lotu behar dira. Puntua hartzea oso zaila da. Nik ez dut nahi besteek egindako mondejurik, nik egindakoak bakarrik.

Gero egosi egin beharko



Mondeju zuriak

Gutxi gorabeherako neurriak dira Kaietanak eman dizkigunak, begiz egiten baititu. Osagaiak:

- Dozena eta erdi porru, ahal baldin bada horiak.
- Tipula handi bat, edo bi txiki.
- Seboa, nik gutxi botatzen diot, 3/4 edo kilo. Nik koipea nola daukan begiratzen dut gutxi gorabehera.
- Tripakiak kilo erdi, ahal baldin bada arkumearenak.
- Pikante pixka bat, neurria norberak hartuta.
- Dozena bat arrautza.
- Hestea. Beti zati bat bete gabe utzi behar da, bestela lehertu egiten da
- Kordak.
- Perrexila pixka bat, lehorra bada hobe.

Kazuelan seboaren erdia bota eta, tipula eta porrua txapuzten jarri. Gatza bota, bestela belztu azkarrago

egiten da. Gainerako seboa txikituta, beharraren arabera bota.

Gero arkume tripakiak egosi behar dira. Gatza eta piperra bota behar zaie egosteko garaian, piper pikante bat, berak pikante puntua eduki dezan. Txikitzen dela ikusi arte eduki behar da egosten. Gero, txikitu egin behar dira tripakiak.

Tipula eta porrua txapuzten direnean, tripakiak eta gelditzen den seboa eskuarekin txikituta bota. Arrautzak ere bai. Dena nahastu eta ondoren, hesteak bete.

Norberak neurria hartu behar du: arrautza asko ez dezala eduki, barazkiak berdinean txikitu. Barazki guztia eskuz txikitu behar da. Tripakiak ez, makinan txikitzen ditut. Izugarritzko diferentzia dauka.

Mondeju beltza

Mondeju zuriak egiteko behar diren porru eta tipula kopuruak alderantziz: hau da, porru bat ala bi; eta tipulak. Arrautzak bota beharrean ardiaren odola botatzen zaio.

dira.

Ura irakiten jarri mondejuak egosteko. Puntak zulatu egin behar dira, gora bete daitezen hesteak. Urak irakite puntua daukanean sartu, sua jaitsi erabat eta pix-

ka batean eduki. Ordu laurden bat-edo...nik begira egiten ditut eta. Begiak itxita ere egingo nituzke.

Asko egiten al dituzu?

Joan zen urtean hainbeste ez nituela egin behar, baina

azkenean gehiago egin nituen. Duela bi urte 172 kilo egin nituen; eta iaz, 187 kilo. Seme-alaben enkargurako.

Zuri nork erakutsi zizun mondejuak egiten?

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTI-K BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Amari ikusita. Ni sukaldean oso saltsera naiz eta 7 urte nituenerako, sukaldean, amari laguntzen aritzen nintzen. Hura perira joaten zen garaian, hark zituen irinak eta azukreak bukatu egiten nituen, pastelak-eta egiten.

Noiz egiten zenituzten etxean mondejuak?

Gaur egun baino geroxeago, azaroan, Santu Guztietan... Aurreneko mondejuak Bedaion hasten ziren, urrian. Bedaioko mondejua janda nago eta onak egiten dituzte. Orendainen, Santu Guztietan hasten ginen egiten. Ardiak ere gustua, urriaren 15etik urtarilaren lehenengora bitartean edukitzen du. Gero aldatu egiten zaio. Ikaztegietan Toki Alai, taberna 14 urtean eduki nuen.. Asteazkenetan Ordiziara perira joan, ardia erosi, neronek hil eta barandilan larrua jartzen nuen, jendeak ikusteko mondejuak bazirela. Azaroa da mondejuak jateko garairik politena, giroa ere behar baita mondejua jateko.

Mondejuak nork egiten zituen etxean?

Amak eta nik. Jateko hori bai, denok elkartzen ginen.

Lehiaketak ere irabazi izan dituzu. Zaldibiako Ardiki egunean adibidez.

Azkeneko bi urteetan bigarren egin dut, baina aurretik txapel bat baino gehiago irabazi izan ditut.

Beti gustatu izan zaizu beraz, sukaldean aritzea.



12 seme-alaben ama, eta sukalalaria

75 urte ditu Kaietana Etxeberriak. Orendaindarra da eta gaur egun Lazkaon bizi da. 15 seme-alaba izan ditu Kaietanak; 12 bizi dira. "Hainbeste seme-alaba izanda, gaur txar bat ez dut pasatu", azpimarratu du Kaietanak. Porru salda, eta aia arrautzarekin ematen omen zien afaltzeko.

Beti eduki izan du sukaldaritzarako zaletasuna, eta etxean zituenei janaria prestatzeaz gain, 38 urtean ostalaritzan dihardu lane-

an. Gaur egun, Lazkaoko Amebiko sukaldean aritzen da, ostiraletan eta larunbatetan, betiko sukaldaritza eginez.

Igandetan, hori bai, Orendaingo baserrian izaten du hitzordua Garmendia Etxeberria familiak. "30 lagunetik gora elkartzen gara", guztiak ere mahaiaren bueltan.

Seme-alabak ere aritzen dira sukaldean. "Ondo egiten dutenak badira", azpimarratu du Kaietanak.

Prestatu eta zerbitzatu

Ikaztegietako Toki Alai tabernan 14 urte egin zituen Kaietana Etxeberriak. Bazkaria berak prestatu eta berak zerbitzatzeko zuen. "Nik bazkaria prestatu eta neronek zerbitzatzeko nuen. Egutero 40 lagun izaten nituen bazkaltzen. Semea jartzen nuen tabernan zerbitzatzeko, ez zait eta gustatzen tabernan sartu eta mostradorean inor ez egotea, oso triste da", azpimarratu du.

Bai, 38 urte daramazkit sukaldaritzan. Beti gustatu izan zait gauza berriak ateratzea. Lazkaoko Amebin aritzen naiz orain. Gaintzan Oteñen ibili nintzen baina ordu asko ziren eta Amebin ostiraletan eta larunbatetan aritzen naiz. 75 urte ditut eta nahikoa daukat.

Errezeta berriak nondik

ikasten dituzu? Argiñanori begira ere egoten zara?

Neronek ateratzen ditut. Gaur ere txapuza asko bota dio, azafranak... Argiñanori idatzi egin behar diot, asko ezagutzen dut. Hemengo jana galtzen ari da. Janak ez dauka espezien beharrik. Jana berria bada, freskoa bada ez du ezer behar, olio

ona da beharrezkoa.

Prestatzeaz gain, jatea ere gustatzen al zaizu?

Jateko hau eta hau gustatzen zait. Gauzak berriak probatzea ez zait gustatzen. Ohitura da.

Sukaldean sekretuak ere eduki dituzu.


Berak erakusten du, ari denari berak erakusten dio.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Ordizia kantuz iraila - urria



Irailak 21 (osteguna):

Barrena Kultur Etxean, 21:30ean.

Asier Serrano, Lorelei musika taldea gidatu zuen musikari eibartarraren kontzertua.



Irailak 28 (osteguna):

Barrena Kultur Etxean, 21:30ean.

Arima Beltza, Blues & Rock estiloa jorratzen duen talde elgoibartarrak, zuzeneko emanaldia eskainiko digu.



Urriak 5 (osteguna):

Barrena Kultur Etxean, 21:30ean.

Anari, doinu goibel eta bakartiak lantzen dituen bakarlariak eskainitako kontzertua.



Urriak 12 (osteguna):

Barrena Kultur Etxean, 21:30ean.

Atomoog, trip-hop, elektronika eta rockaren arteko nahasketa berezia egiten duen taldearen kontzertua.



Urriak 20 (ostirala):

Afaria, Plaza Nagusian, 20:30ean.
Kontzertua, 22:00etan.

Kantu afaria eta **Pantxoa** eta **Peio**. Afari-legea (txorixo ogitartekoak eta sagardokupela). Ondoren Euskal kantagintzaren talde klasikoaren kontzertua.

Σ

Babesleak:



ORDIZIAKO
UDALA




EROSKI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Laguntzaileak:



Beasain

Arana-Bideluzeko jaiak

Irailak 22, ostirala:

- 18:15ean:** Danbatekoa.
18:30ean: Erraldoi eta buruhandiak txistulariekin.
19:00etan: Txokolate jana.
21:30ean: Bakarriketak.
23:30ean: Musika emanaldia.

Irailak 23, larunbata:

- 12:00etan:** Trikipoteo herrikoia.
18:00etan: Kalejira txarangarekin.
18:30ean: Gorritiren animaliak.
23:30ean: Musika emanaldia.



Irailak 24, igandea:

- 12:00etan:** Trikipoteo herrikoia.
14:00etan: Arana-Bideluze eta J.M. Iturriotz kaleetan jaiotako erretiratuentzako bazkaria.
17:00etan: Toka eta igel jokoak erretiratuentzat.

Ordizia

Ordiziarrock

Irailak 22, ostirala:

- 16:30ean:** Skate gunearen irekiera, entrenamenduak.
17:00etan: Zineskate'06 filmeen zikloa: 'Rescue me' (Sorkun, 2006), 'Euskadi Patina' (Anai Garcia, 2005), 'Malasaquas' (Mikelde de Diego, 2006), 'Con tu peña, a tu royo...' (Bobby, 2005), 'Chirifu' (Sergio Arroyo, 2005).
22:30ean: Kontzertuak: Adictiva, Asma, Nuke eta Biok.

Irailak 23, larunbata:

- 11:00etan:** Herriko plazan, Skate eskola haurrentzat.
16:00etan: Skate lehiaketaren lehenengo kanporaketak. Graffiti erakusketa kanpoko gunean.
18:00etan: Sagardo eta pintxo dastaketa dohain.
19:00etan: Skate lehiaketaren finalak.
20:00etan: Sari banaketa.
22:30ean: Kontzertuak: Dogma proiekt, Milkshake, Sorkun eta Zoo.
Ondoren: Dj Pi.

Segura

Euskal Herriko hegaztien 5. eguna

Hegazti ikusgarriak leku berezia izango dute azoka honetan: Ezkioko Narraspe eta Mutiloako Iñaki Altunak hainbat hegazti bitxi erakutsiko dituzte: kurrilo, oilar borrokalari, faisai, jakana, uso eta ahate espezie ezberdinekoak. Euskal Oiloak bere txokoa izango du: beltza, zilarra, gorria, lepa soila eta marraduna. Erosketak egiteko aurkera ere izango da: ahate eta ostruka produktuak, arraultza ekologikoak...

Irailak 24

10:00etan: Txistulariak eta trikitilariak herrian zehar
10:00etatik aurrera:

- Euskal oiloaren erakusketa.
- Hegazti ikusgarriak: kurriloak, faisai...
- Gune ekologikoa.
- Oilo eta hegaztien produktuak salgai.

Idiazabal

San migelak Ursuaranen

Irailak 29, ostirala:

- 19:30ean:** San Migel eguneko meza. Jaiei hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin.
Ondoren: Afaria: mondejuak, gixadua eta ardi txuletak.
22:30ean: XIII. mus azkarra lehiaketa.

Irailak 30, larunbata:

- 12:00etan:** Meza Nagusia.
Ondoren: Txistulariak, Agirre eta Lazkano bertsolariak eta trikitilariak.
14:00etan: Udaletxe bazkaria.
Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.
Iluntzean: Afariak.
Ondoren: Trikitilariak goizaldera arte.

Urriak 1, igandea:

- 11:00etan:** Meza Nagusia.
12:30ean: Idiazabalgo herri kiroletako taldearen erakustaldia.
14:00etan: Herri bazkaria. Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariak eta trikitilariak.
17:00etan: Joko tradizionalak haur eta helduentzat, trofeo eta opariekin eta txokolate jana.

PSIKOLOGI KLINIKOA

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

iñAUSTI N-1 errepidea
 lurre auzoa
OLABERRIA
 ☎ 943 88 43 01

KARROZERIA


Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info
gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Idiazabalen etxebizitza salgai. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongelarekin. 638872270 - 653708947.

Ordizian pisu berria salgai: sukaldea, egongela, 2 logela, 2 komun, terraza eta trastalekuarekin. 49.000.000. Deitu. 686959064.

Lazkaon etxebizitza salgai (Gurutze kalea, 1-8.), herri erdian, bista paregabeak, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastalekua eta balkoi handi bat, 2 igogailu. 670588470.

Itsasondon etxea salgai, berritzeko. Baratzeko aukerarekin. Aukera ona. 696218195.

Segurako erdigunean 72 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta ganbara. Altzariekin. Garajea aukeran. 943801736.

Ataunen pisua salgai, berritu ondoren estreinatzeko. Sukaldea eta bainugela jarrita. Bi logela eta egongela. Leku onean. Aukera. Inmoeki: 675705268.

errentan eman

Urretxun pisua alokatzen da. 635714580.

elkarbanatzeko

Bilboko San Inazio auzoan neska bat behar da pisua konpartitzeko. 667001562 - 685775491.

GARAJEAK

salgai

Lazkaon lur azpiko garaje itxia alokatzen da Jose Lasa kalean. 943885574. Iluntzetan deitu.

Ormaiztegin lur azpiko garaje itxia alokatzen da. 609411811.

Lazkaon 43 m²ko garajea salgai. 635872270 - 653708947.

NEGOZIOAK

leku aldaketa

Jos&Bel. Hemendik aurrera P21 mertalgunean egongo gara, Ordizia Osasun Zentroaren gainean.

BASERRIAK

salgai

Zaldibian, baserria salgai. 943880915.

erosi

Goierrin borda edo baserri txikia erosiko nuke. Baserri handi edo inmobiliarik ez. 692115273 - 653743943.



Deitu eta eman izena:
943 88 92 31
lazkao@maizpide.com
www.maizpide.com

Barnetegian
hilabeteko ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.

Ordukako ikastaroak.

euskara
Bizi,
euskaraz
Bizi!

EGA on-line
Autoikaskuntza
4. maila

Larunbatetan
Alfabetatze
eta EGA
ikastaroak.

BESTELAKOAK

salgai

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. 615755762.

Duccasa akumuladoreak salgai. 670562800.

Prentsa eta sagarra txikitzeko makina salgai. 943887726.

Eskopeta, superpuesta, salgai. 943801179.

Shoei markako kasko berria salgai, oso prezio onean. 661276347. Amaia.

Ziklomotorea salgai, Kinko Dink 5 (500 euro, negoziagariak). 943160377.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen Passat 1900 TDI autoa salgai. SS-BK. 645006737.

ANIMALIAK

opari

Bi hilabeteko artzain belgikar txakurra oparitan. 943882034.

Katuak opari. 678924478.

LANA

eskaerak

Idiazabalen pertsona ardura-tsua behar da 8-10 urte bitarteko bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649600827.

Zerbitzari euskalduna behar da jatetxe baterako. Esperimentzia badu hobe. 615745924.

Zegaman, Itzalan tabernari euskaldunak behar dira. Eguneroko edo astebukaeratarako kontratuarekin. 658705331 - 685704619.

Jatetxe batean larunbatetako zerbitzaria behar da. 630402575.

Seguran neska bat behar da etxeko lanak egin eta umeak eskolara eramateko. Ibilgailua beharrezkoa. 943801088.

Begiralea behar du Xapobixi aisialdi elkarteak, arratsaldetan lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum irailaren 22rako. ioana@gaztesarea.net-era.

Pertsona bat behar da Beasaingo tabernan lan egiteko. 943160205.

Akademiak irakasleak behar ditu gai desberdinetan adituak. Kurrikulumak honako helbidera bidali: 61 posta kutxa, 20240 Ordizia.

Zerbitzaria behar da erretegi baterako larunbat gau eta jai batzuetarako. 615700408.

Mandio tabernarako zerbitzaria behar da. 943801705.

Legazpiko taberna batean pertsona bat behar da tabernari lanerako. 659652198.

eskaintzak

Arratsaldetan, haurrak eta edadetuak zaindu edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago neska bat. 650940610.

Emakumea adineko pertsona egunez edo gauez zaintzeko prest dago. 616889923.

Informatikan titulatu. Ordenagailu konponketak egiten ditu. Oso merke. 676986446.


GUKlan
BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



mazda


☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE
KARROZERIA



Eskarabillako jaiak 1959

Ordiziako Eskarabilla auzoko jaie-takoa da 'Gontxu'-k utzi digun ar-gazki hau, 1959. urteko irailean danborrada egunean ateratakoo-da:

Zutik ezkerretik eskuinera: Jose Migel Latasa, Jose Ignacio Cordero eta Rafael Altuna.

Pikotxean: Juantxo Latasa eta Luis Gonzalez Txurruka (Gontxu).

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 943 160 120
Beasain www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzegin
- ✓ Emozioen kontrola

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

2006-2007 IKASTURTEA
MATRIKULA IREKIA



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84



EUSKAL HERRIKO HEGAZTIEN SEGURA

5. eguna


2006.eko irailaren 24an
EGITARAUA
Goizean zehar, herriko txistulari eta trikitilariak
10:00etan:

- Euskal oiloaren erakusketa
- Gune ekologikoa
- Oilo eta hegaztien produktuak salgai
- Hegazti ikusgarriak: faisaiak, usoak, kurrioloak, etabar.

ANTOLATZAILE

SEGURAKO UDALA
ETA AZOKA
BATZORDEA

LAGUNTZAILE
76
eguna
1250-2006










TRUK

moda eta osagaiak

Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545



Asentxioren Euskara Plana

Kremailera irekitzeko plana

AEP1.- PLANAREN HELBURUA:

EZJAKINTASUNA, ZAILTASUNA EDOTA ERABILERA FALTA DVENARI KREMAILERA IREKITZEN LAGUNTZEA.

AEP2.- NORI ZUZENDUA:

EUSKARA IKASI, HOBETU EDO ERABILI NAHI DVEN GURASO, IKASLE, ETORKIN, LANGILE ETA PERTSONA ORORI.

AEP3.- EPEA:

2006-2007 IKASTURTEA

AEP1.- PLANAREN HELBURUA:

EUSKARA IKASTAROAK 2006-2007

- ◆ **Maila guztiak.** Bigarren mailatik gora, mintzamina eta irakurzaletasuna lantzeko taldeak.
- ◆ **Azterketak** prestatzeko ikastaroak: Osakidetza, Hezkuntza, EGA...
- ◆ **AISA** etorkinentzat harrera ikastaroak.
- ◆ **Mintzamina lantzeko** ikastaroa.
- ◆ **Ostalarientzako** ikastaroak.
- ◆ **Autoikaskuntza** sistema tutorearekin.
- ◆ **Tutoretza, Mintzalaguna...**

WWW

Izena eman ezazu gure web gunean eta matrikula baten zozketan parte hartuko duzu.
www.udaleuskaltegiak.net

UDAL
EUSKALTEGIAK

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

San Martin plaza z/g, kultur etxea. 20200 BEASAIN
Posta-E: zuzendaritza@beasain.net T 943 082 100